


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abuztuaren 16a

Xareta: mugak gaindituz

■ Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako herriarrek Xareta eratu berri dute zona horretan turismo kulturala bultzatzeko asmoarekin. Xareta hiru herriok biltzen dituen eremu geografikoa izanik, horren ildotik Xaretarrak elkartejaia da. Elkartekideek Europan gairela eta mugak desagertu direla aintzat hartuz, mendeetan hiru herrion artean izan den harremana legezatu dute. Elkarteja ezagutzera eman eta gero, elkarlanean eta euren xaretar nortasuna gordez, hainbat proiektu abiatzekotan dira. ■



Zubian barna

BINGEN AMADOZ



Biescas izena ez zaigu nolanahi burutik aldentuko. Bertan ikusitakoak, hantxe entzundakoak luze iraunen du gure baitan. Hura bezalako tragediak memoria kolektibora pasatu ohi dira. Biktimak: katalanak, euskaldunak, valentziarrak, Aragoiko beste eskualdekoak izanik ere, bertakoek ongi asko gogoratuko dute gertaturikoa, haiek izan baitziren mementu larrienen behar-beharrezko ziren laguntza-emaileak, askoren salbatzaileak, baita zeregin horietan sarturik, bizitza arriskuan jarri zutenak ere, ezbeharrak zer tamaina handikoa zen ohartu ziren lehenak, Aras eta Gallego erreketatik hainbat eta hainbat hildako eta zauritu atera zituztenak, eta hondamendia zenbaterainokoa zen ohartu ziren lehendabizikoetakoak.

Inguruko herrixketako zaharrek hala esaten omen zuten duela 40 bat urte, Aras errekararen ubide naturala artifizialki kanalizatu zutenean: «Aras erreka ari zarete haserretzen, eta egiten zaiona goiz ala berandu garesti ordainaraziko dizue». Zahar horiek ongi oroitzen zuten zalantzarik gabe, orain hondamena suertatu den toki berean 30 bat urte lehenago pasatutakoa. Alegia, bertan ez dira urteroz ezta sarritan ere uholdeak izaten, baina noizbehinka naturak indarrak astindu eta hortxe agertzen da bere majestate osoan.

1926an suertatu zen aurreko ezbeharrak. Onetik atera zen orduantxe Aras erreka eta bere kemena zuzen-zuzenean ezagutu zuen orduko bidaiari-ga-

rraioan zebilen kotxeak. Gizon bat hil egin zen urak eramanez. 70 urte joan dira geroztik, eta oraingoan errekararen urak askoz ere ondorio larriagoak utzi ditu. Tartean izan da urte hauetan natura menperatu nahian gizakiaren harrokeriaz egindakoa. Behar baino gehiagotan seguruen mesprezuz jokatzen dugu elementu naturalekin. Urari agindu zitzaion bere betiko bidea utzi eta beste alde batetik joateko. Urak berri 40 urteren buruan eman du bere erantzuna, eta astinketa haserre horrek aurretik eraman ditu haur, emakume eta gizon askoren bizitzak. Ikasiko al dugu ikasgaia?

Natura jakintsua dela esan ohi da, baina aintzat hartzekoa da jakintsua izateaz gain indartsua ere badela. X

Biescasen barna

KONTZERTUAK

Burlata: Koma, Los Insoportables eta Síndrome del Norte taldeek kontzertua eskainiko dute hilaren 18an, 22.00etan, Aldabea peñak eta Zumadi tabernak antolatuta.

Corella: Morochos taldeak tangoak abestuko ditu hilaren 21ean, Foruen plazan, eta 23.00etatik aurrera.

Tafalla: Nahi ta Nahiez taldeak kontzertua eskainiko du hilaren 19an, Gabaltzeke tabernan, 20.30etatik aitzina.

Lizarra: Omara Portuondok eta Farah Mariak boleroak abestuko dituzte gaur, 22.00etatik aurrera, herriko kirolegian eta Nafarroako Jaialdien eskutik.

ANTZERKIA

Amaiur: Popi eta Zartrapok *Pailazokertak* izeneko ikuskaria antzertuko dute gaur herriko plazan.

Allo: Txufo, Panplina eta Txufino pailazoan ikuskariak gozatzeko parada izanen da herriko plazan bihar, hilak 17.

Zugarramurdi: Ikili Mikili Klik taldeak egunero *Sorginak* izeneko ikuskaria antzertzen du herriko kobazuloetan. Lanegunetan emanaldi bakarria izaten da 18.00etan. Larunbat eta igandean horretaz gain beste emanaldi bat izaten da 13.00etan.

ERAKUSKETAK

Lizarra: XX. mendeko literatur abangoardien idazkiak ikusgai izanen dira Gustavo de Maeztu museoan hilaren 25era arte.

Bera: Bidasoako paisaje margolarien lanak irailaren bata arte ikusgai izanen dira herriko Kultur Etxean.

Zangoza: *Harriak baino gehiago* instalakuntza hilaren 27ra arte ikusgai izanen da Kale Nagusian.

IKASTAROAK

Lizarra: Pedro Salaberri margolariak pintura ikastaroa zuzenduko du Gustavo de Maeztu museoan hilaren 19tik 30era. Informazio gehiago jasotzeko dei 546037 telefonora.

Iruñea: Musika berriei buruzko tailerra izanen da Gotorlekuko Arma aretoan hilaren 20an.

Iruñea: Web orriak nola egiten diren ikasteko ikastaroa antolatu du Nafarroako Internet taldeak. Ikastaroak astelehenero egiten dira, goizez, taldearen egoitzan. Bost astelehenetan ordubeteko ikastaroa jasotzearen truke partehartzaileek 12.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Iruñea: AEK-k glotodidaktika ikastaroa antolatu du. Ikastaroa irailaren 2an hasi eta 20an bukatuko da. Izena emateko dei 220213 telefonora.

nafarkronika

Patxi Larrion

Karabina-dantzan

Dekuriak, Nafarroan, bigarren errepublika aldarrikatu zen egunean bertan antolatzen hasi ziren. Hamar gizonen osaturiko talde hauek Mussoliniren garaiko Italian lortu zituzten armak eta beharrek laguntza guztia. Erregimen demokratiko berriak omen zekarzkiek gehiegikeriei aurre egiteko sortu omen ziren erakunde armatu hauek berebiziko garrantzia izan zuten diktadura faxista ekarri zuen gerra zibilaren hasieran. Egun ere, altxamenduaren prestaketaz lehen eskuko testigantza asko bildu daitezke. Ugariak dira ere, lan horretan nabarmendu ziren herriak. Herriak baino areago herri horietako zenbait biztanle.

Azken egunotan, dekurien antolakuntzan aitzindari izandako herri horietako bat izan dugu

hizpide. Faxista italiarrek bigarren errepublikaren garaian finantzaturako armak karabina bategen ordezkatu ditu. Gaurko honetan karabina-dunek, piper-potoz eta azaz apainduriko balakoa defenditzean, onartezinak jotzen dituzten zenbait jokoerari aurre hartzen badakitela frogatu nahi izan dute.

Soziologo eta pentsalariak galtzak bete lan daukate pasa den igandekoa aztertzeko tenorean. Horako horrek nafar pintore ezagun baten abizen bereko pentsalariaren moduko lana dirudi. Bada, bere pentsamendua sortzeko prozesuan zailtasun handiak omen ditu hiru koloreak nahasirik aurkezteko unean. Leitzako karabina-dantzakoa trebaleku aparta zuen eginkizun horretarako. Ekin diezaiola. Merez du eta.



asteko pertsonaiak



Waldo dos Santos Brito
Futbolaria

■ Waldo dos Santos, Brito ezizenez ezaguna den futbol jokalaria brasil-darra, Iruñean 14 egun eman eta gero bere jaioterrira itzuli da. Ez da Nafarroako hiriburuan oporretan ibili. Egunero-egunero Iruñetik Taxoara jaitsi da, eta egunero-egunero elastikoa izerditan blai utzi du Rafael Benitez Osasunako entrenatzailearen eta bere laguntzaileen begiradapean. Denboraldi-aurrean lau partidu jokatu ditu soinean Osasunaren kamiseta zeramala. Azkenean, baina, ez du bere helburua lortu, hau da, Osasunako jokalaria izatea. Osasunako arduradunen arabera, «kalitatea badu, baina ez da Osasunak behar duena». Adierazpen harrigarriak, kontuan izanda askoren aburuz Osasunak kalitatea tonaka behar duela. Dagoena dago.



Silvestre Zubitur
Leitzako zinegotzia

■ Silvestre Zubitur 40 urteko leitzarrak UPNko karneta du, eta Union Independiente Leitzarra alderdiko zinegotzia da bere herriko Udalean. Bibotedun honek Nafarroa sakona existitu existitzen dela argi utzi zuen joan den igandean, San Tiburtzio egunean hain justu. Urtero bezala, Baleztena etxeko balkoian bandera espainiarra jarri zuten herriko jaien egun handian. Urtero bezala, bikoloredun banderak tirabirak eragin zituen herriko gazteen eta Baleztena etxeko arteen. Urtero ez bezala, Zubitur, eskopeta atera, eta tiroka hasi zen puxika batzuen laguntzaz Espainiako banderaren aurrean Ikurrina jarri zuten gazteen kontra. Zorionez ez zen inor zauritu, eta Ramon Lapeskerak ezingo du Caines Navarros edo antzeko libururen batean pasadizoaren berri eman.

ahaztu gabe!



OMARA PORTUONDO

Lizarra: Omara Portuondo eta Farah Mariá abeslari kubatarrek beteko dute gaur Lizarrako gaua. Bi artistek bolero zahar eta berriak, franko entzundakoak eta ezezagun samarrak abestuko dituzte Los Llanosen, 22:00etatik aurrera, Nafarroako Jaialdien eskutik. Eskarmentu handiko emakume bat —40 urte daramatza abesten Omara Portuondok— eta gazte bat —Farah Maria— ekarri dituzte antolatzaileek emakumei dedikatutako ziklo honetako bigarren egunera, Biok *Filina* abesten dute. *Filina* da Kubako antzinako musika doinua —habanerak, boleroak— Ipar Amerikako jazzarekin nahastua, Glen Millerrengandik hasi eta Nat King Col-eraino. Nahasketa izugarria, finean, betiko abesti ezagunak ateratzen baitira mozturirik, mota guztietako doinuz jantzita. «Aldiro-aldiro desberdin abestu, norberak sentitzen duen bezala», horixe da abeslari hauen lema. Aurten argitaratu du Portuondok *Palabras* lana, *filin* mugimendu honetako 12 kantagileren abestiek.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Iruñea



Besteak beste, Gotorlekura bisitaldia egin dute haurrek.

JOXE

Euskararekin jolasean

IPESek eta Giroak haurrentzako euskara tailerrak antolatu dituzte

Iruñeko 57 haur euskaldunek jaia egin zuten joan den asteazkenean, Burgoen plazan. Jokoen, musikaren eta gozokiaren laguntzaz, umeek agur esan zioten IPESek eta Giroa taldeak abuztuko lehen hamabostaldian zehar antolaturiko haurrentzako euskara tailerrari. Bi asteotan, ikastolan ezezik jokatzeke tenorean ere euskarak tokia baduela ikasi dute haurrek.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

JOKOAK, musika, dantza, gozokiak, mozorroak, hamaiketako... denetarik izan zen asteazkeneko jaietan, azken agurra garrantza izan ez zedin. Haur askok, dena dela, tailerreko begiraleei gero arte besterik ez zieten esan; izan ere, IPESek eta Giroak abuztuko bigarren hamabostaldirako beste taller bat antolatu dute, eta haur anitzek, lehendabizikoa gozatu eta gero, bigarrenaren ere parte hartzeko izena ematea erabaki dute.

Tailerrak iraun duen bi asteotan, haurrek ederki pasatzeko

parada izan dute. Jolasean, kasik konturatu gabe, antolatzaileek irakatsi nahi zieten barneratu dute, euskarak ikastolan ezezik, ikastolatik kanpo, jolasteko tenorean ere bere tokia baduela hain zuzen ere. Iñaki Azurmendi begiralearen arabera, «horixe da helburu nagusia, haurrei euskara eta ikastola gauza bera ez direla erakustea, inguru erdaldunetan bizi diren ikastolako haurrei euskaraz jolasteko aukera eskaintzea; euskaraz jolasterik badagoela ikusten dute hemen».

Lau eta hamar urte bitarteko haurrek hartu dute parte tailerretan. Gauzak horrela, txiki askok urtebete besterik ez dute ikastolan eman, eta ez dute oraindik euskara oso ongi menderatzen. Azurmendiren arabera, «horiei tailerrak euskara entzuteko ohitura ez galtzeko aukera eskaintzen die»; helduagoei, berriz, «euskara hobetzeko beta».

«Oso ongi pasatu dugu» • Orotara 57 haurrek hartu dute aprte lehen hamabostaldiko tailerretan,

bi taldetan banatuta: gaztetxoek alde batetik, eta helduagoak bestetik. Golzero bi ordu eta erdiz bi begiralek helduagoekin lan egin dute, eta beste hirurok txikiekin, «horiek dira-eta lan gehien ematen dutenak».

Bi taldeok, beti ere jokoan bitartez, bi gai landu dituzte. Lehendabiziko astean, elkar ezagutzeko jokoak gibeletik, euskara hartu zuten gai nagusitzat. Bigarren astean, fruta izan zen landutako gaia. Besteak beste, Nafarroako Museora, Gotorlekura, Takonera parkera eta Udal Santo Domingo kaleko Azokara bisitaldia egin dituzte. Horretaz gain, kantuak eta dantzuk ikasi dituzte, kamisetak margotu dituzte, maskarak egin dituzte, mozorroak ere bai...

Haurrek asteazkenean grabagailuaren aitzinean egin zituzten adierazpenen arabera, tailerretan ez da aspertzeko astirik izan. Irantzu Oitz 10 urteko gaztetxoaren hitzetan, «guztia oso ongi egon da, eta oso ongi pasatu dugu». Bederatzi urteko Leire Markinez Irantzu ados zegoen

bere lagunarekin. Kazetariak begiraleek itxura triste samarra zutela eta tailerra seguru asko aspergarria izan zela esan zionean, honako hau erantzun zuen: «Ez, begiraleak oso jatorrak dira, gauza asko egin ditugu, eta oso ongi pasatu dugu».

Maria Olatz 5 urteko neskatua ez zen Irantzu eta Leire bezain hiztuna. Haren iduriko, gozokiak ziren tailerreko gauzarik erakargarriena; izan ere, esku artean hiruzpalau gozoki bazi-tuen ere, kazetariari honako hau besterik ez zion esan: «Gozoki gehiago nahi ditut». Endika Delano, berriz, oso kontent zegoen soinean zeraman kamisetarekin: «Hau da egin dugun gauzarik hoberena, kamisetak margotzea». Diseinu iraultzaile xamarra hautatu zuen Endikak: ikurrina eta horren ondoan *Intsumisioa* leloa. Ez larritu, ume guztiak ez dute inozentzia galdu, 57 haurren elastikoetan Asterix eta Obelix, Heidiren lagun Clara eta antzeko marrazkiak baitziren nagusi.

Heldu den astelehenean IPE-Seko eta Giroa-ko begiraleek hasiera emango diote bigarren hamabostaldiko tailerrari. Lau eta hamar urte bitarteko haurrek IPESen egoitzan bertan eman dezakete izena horietan parte hartzeko (San Migel kalea, 8). X

«Haurrei euskara eta ikastola gauza bera ez direla erakustea, euskaraz jolasterik badagoela erakustea da gure helburu nagusia»

Otsagabia

Erdi Aroan girotutako antzinako merkatuak gaur eta bihar

■ 50 erakusmahaitan gazta, ezti, sagardoa, opilak, ahatekiak eta txerrikiak salgai

Erredakzioa / Iruñea

ANTZINAKO Merkatuak iritsiko dira asteburu honetan —larunbat eta igandean— herrira. Udalaren eta Pirinioetako Partzuergo Turistikoaren artean eginiko elkarlanari esker. Merkatu hauetan, Nafarroako Artisanu Elkargaien Elkartek Erdi Aroko giroa antzetzten du bere produktuak jendaurrean saltzeko, eta Nafarroa osoa zeharkatzen du uda parte honetan.

Berrogeita hamar izango dira Otsagabian paratuko diren erakusmahaiak, horien artean izango dira gazta —Idiazabalgoa eta Erronkarikoa—, opilak, sagardoa, ezti, ahatekiak eta txerrikiak. Halaber, eskulana ere erosi ahal izango dira —zeramika, larrua, papera eta abar—. Merkatuarekin batera antzerkia, malabarrak, ipuin kontalariak, musika eta aztiak izango dira inguruan, giro hori irudikatzen. X

Amaiur

Herriko festak ospatuko dituzte asteburuan zehar

■ Jaiak asteazkenean hasi ziren eta igandera arte luzatuko dira

Erredakzioa / Iruñea

AMAIURREN Nafarroako beste herri askotan bezala festetan daude. Asteazkenean hasi ziren parrandan eta igandean bukatuko dute, azken eguna baitute. Gaur, haurren txanda da, eurentzat prestatutako eguna izanik hainbat ekitaldi baitituzte. Arratsaldeko lau eta erdietan haur jokoak dituzte plazan, eta seietan Popi Zatratrako pailazoan ikuskizuna izan da. Hau akitu bezain pronto txokolata dastatu ahal izanen dute umeek. Arratsaldeko eta gaueko dantzaldia Gau-bela taldeak animatuko du. Bihar, besteak beste, Baztango III. Mendiko Bizikleta proba izanen da arratsaldeko lau eta erdietan, eta dantzaldia berriz ere Gau-bela taldearekin. Igandean, festetan azken eguna izanik, zikro jatea izanen dute Amaiurren ordu bietan. X

Xaretarrak: mugen gainetik elkarlanean

Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako herritarrek turismo kulturala bultzatzeko egitasmoa abiatu dute


Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako herritar talde batek eratu du Xaretarrak taldea. Asmoa da, ohiko turismoaz landa, herriotako kultura eta nortasuna ezagutzera ematea, hots, turismo kulturala bultzatzea. Europan izanik, mendeetan gobernuek ezarritako mugen gainetik elkarrekin lan egiteko gogoia aldarrikatzen dute. Jadanik hasiak dira, Xaretarrak elkarteak sortu dute eta proiektu asko dituzte.

Irene Arrizurieta / Iruñea

XARETA, berez Zugarramurdi, Urdazubi eta Sarako ingurune geografikoa da. Aita Barandiaranen *Obras completas* lanari erreparatu gero, xareta txarak diren tokia omen da, hau da, zuhaitz txikiak batera diren gunea. Horrela definitzen du Saran urte asko egin zituen Barandiaranek hiru herri horien eremua.

Xareta egitasmoa berriki abiatua da, hiru herriotako merkataria eta herritar batzuen ekimenez. Guztia «Sarako lezetik hasi eta Urdazubiko lezeetara egin zen istorioaz eta bidez hasi zen», gogoratu du Jose Antonio Menta Dantxarinerekin Menta jateko jabe eta Urdazubin Xaretarrak elkartearen lehendakariordeak. Berarekin batera proiektuaren partaide dira Elias Tapia saratarra eta elkartearen lehendakaria, Juan Luis Alkorta Zugarramurdiko lehendakariordea, Daniel Laplacette Sarako lehendakariordea eta Edurne Hernandez idazkaria. «Nafarroako Gobernuak eta Akitaniakoak hemen prestatu zuten bilkura joan den udazkenean. Ikastaroan Xaretaren inguruko historiaurrea, historia berria eta mitologia erakutsi ziguten, besteak beste».

Sara, Zugarramurdi eta Urdazubi ongi zaindutako natura ingurune zoragarrian daudela ikusirik eta ohiko turismoaz aparte hainbat eskaintza emateko gai dela oharturik, aprobeztxamendu turistiko eman nahi diote parajeari turismo kulturala bultzatuz. Europan izanik eta mugak urraturik, mendeetan zehar izan dituzten harremanak sendotu nahi izan dituzte. «Xareta aspalditik sortua da, horrela zen. Orain egin duguna legalki formalizatzea izan da. Hori betetik zen, baina orain Europan gara. Guk formalizatu dugu historian zehar egon dena. Europako aitzakia hartu dugu eta ofizial egin dugu. Muntatua da Xaretarrak elkarteak hiru herrien artean kulturaren eta turismoaren promozioa egiteko», azaldu du Mentak. Beti izan duten harreman ona aprobetxatuz, lezeen




Urdazubiko San Salvador monasterioko klaustroa moldatu eta bertan Berroetako lezeetan aurkitutakoak erakutsi nahi dira.

OSKAR MONTERO

arteko lotura ezezik beste anitz gauza egiten ahal zirela konturatu ziren eta proiektuak pentsatzen hasi ziren.

Xaretarrak elkarteak eratu eta gero, lehenik eta behin *Xareta* liburuxka argitaratu dute. Bertan Sara, Urdazubi eta Zugarramurdiko historia eta baliabide turistikoak azaltzen dira laburbilduta euskara, gaztelania eta frantsesez. Bilboko Erakustazokan egin zen Expovacacionesen aurkeztu zen *Xareta*, eta arrakasta handia izan zuen. Nafarroako Gobernuari ere asko gustatu zitzaion. Momentu honetan proiektu anitz dituzte. Zugarramurdiko ospitale zaharra moldatu eta antzetzoki bihurtu nahi dute. Urdazubin, bestalde, frontoia dagoen tokitik kendu eta Pedro Axular idazle urdazubiarraren omenezko eskultura jasoko lukeen enparantza jarri nahi dute, iturri eta guzti. San Salvador monasterioko klaustroa ere erakustoki bezala egokitu nahi dute. Bertan Principe de Vianaren Iruñeko egoitzan gordeta diren Berroberriko lezeetako arpoi puntak, aizkorak eta historiaurreko materialak paratuko lituzkete. Toki berean San Norberto Mardenburgoko apezpiquaren abituak eskegi nahi dituzte.

Mentak dioenez, «San Norberto Urdazubiko monasterioaren birfundazioko apezpikua izan zen, bi aldiz erre baitzuten monasterioa. Bere mitra, zapatillak eta monasterioko zigiluak bildu nahi ditugu. Izan ere, Urdazubiko monasterioa aski garrantzitsua zen denbora batean. Badakigu badirela bi nafar errege hemen egonak direnak. Anitzek ez dakite gaztelua bazela Azkarreko kas-



Urdazubik eta naturak eskaintzen dituzten altxorrek gozatzeko parada izanen du bisitariak.

OSKAR MONTERO

koan. Hori dena erakutsi nahi dugu». Saran ere badute asmorik. Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako lurretan leze ugari dau-

delako aintzat hartuz, horren inguruan ikertzeko eta aurkitzen diren tresnak eta erremintak gordetzeko Bilaketa Genealogi-

korako Zentria ireki nahi dute.

Kulturaz gain, hiru herrien arteko komunikazioa hobetu nahi dute, bideak ez direlako onak. Hori dela eta, bi aldeetan bideak eginak badirela aprobetxatuz, Sara eta Zugarramurdi artean zubi bat erakitzeko eskaera egin dute hiru udaletxeek. Era berean, herri batetik bestera zaldiz edo gurdiz joateko aukera ere zabaldu dute.

Ilusioa eta elkarrekin lan egiteko gogoia sobera, baina, betiko afera, sosa gutxi artean. Nafarroako Gobernuak eta Europako Batasuneko ateak jo dituzte Xaretarrak elkartearen partaideek, baina hitz politikak besterik ez dituzte jaso. Hala ere, oso baikor dira Elias Tapia Xaretarrak elkartearen lehendakariak agertu duenez. «Xaretarren istorioa berria da, duela gutxi jarri zen martxan eta dena zintzilik dago. Beste proiektuetan bizpahiru urte ematen dituzte proiektuak gauzatzeko. Hemen bazen borondatea eta hiru herrietan segidan sortu da. Bilkura izan zen joan den urrian, handik bi hilabetera ikastaroa, eta apirilean atera genuen liburuxka. Bada gogoia, gauzak arunt fite egiten ari dira, Herriko Etxeen eta herriaren borondatea gehiago delako dirua baino».

Sosik ez badute ere, dagoeneko martxan jarri dute oju zaien proiektuetako bat, Xaretako historia bilduko duen liburua argitaratzea hain zuen ere. Elkarteak bazkideek ezarritakoarekin ordainduko da, eta argitarapena ere hitzartua dute. «Xaretako historia guztia berreskuratu nahi dugu, historia zabala eta juzea duen arren asko ezezaguna delako xaretarren artean. Eskolan

Xaretarren lurraldea

eta herriko jedearen eta bisitarien artean banatuko dugu», dio Mentak. Proiektua bideratua dago, eta hemendik aurrera has-tekoak dira hiru herriotako historia biltzen.

Xaretarrak elkarteak martxan jarri nahi dituen proiektuekin

garela. Ez gara hala, ezta egundaino izan, eta ez dugu izan nahi ere. Guk nahi dugu xaretarrak izan. Orain arte ez gara elkarrekin sobera mugitu, hau da okasio on bat aitzina emateko, eta horrek ere indartzen gaitu», gogoratu du Jose Antonio Mentak.

ondoko herria da Amalur, eta hor baztandarra mintzatzen dute. Guk lapurtera euskara dugu, Axularren euskara». Nortasun hori oraindik gehiago azpimarratzeko mugarriak ere paratu dituzte kanpotarrei zer eremu duen Xaretak erakusteko. Ze-

tuzte emanak, besteak egiten ari baitira. Bisitariak Urdazubiko Telleria auzo ondoan aurkituko du lehena, bigarrena Baztango mugan, eta hirugarrena Sarak Semperekin muga egiten duen Santa Katalina ermitan. Orotara zortzi jarriko dituzte.

rria. Kide berria edukitzearen aurka ez badaude ere, xaretarrek ez dute oso argi ikusten Ainhoaren sartzia. «Gure artean ez dago bihotzeko agerarik, ez historiarik, eta ez da behin ere Sararekin lanean aritu. Betitik Ezpeletarekin aritu da lanean. Sartuko ba-

Jose Antonio Menta:

«Xareta aspalditik sortua zen. Guk formalizatu dugu historian zehar eman dena. Muntatua da Xaretarrak Elkarte hiru herrien artean kulturaren eta turismoaren promozioa egiteko»

Edurne Hernandez:

«Proiektu anitz ditugu, xaretarren historia berreskuratu nahi dugu, Zugarramurdiko ospitale zaharra moldatzea antzestoki bihurtzeko eta Urdazubiko San Salvador monasterioko klaustroa museo bihurtzea, besteak beste»



Edurne Hernandez, Jose Antonio Menta, Juan Luis Alkorta eta Elias Tapia Xaretarrak elkarteko partaideetako batzuk dira.

OSKAR MONTERO

Elias Tapia: «Xaretarrak duela gutxi jarri zen martxan eta dena zintzilik dago oraindik. Hala ere, bada gogoia aurrera egiteko. Gauzak fite egiten ari dira, herriko etxeen eta herritarren borondatea gehiago delako behar dugun eta ez daukagun dirua baino»

«Gu ez gara baztandarrak, xaretarrak baizik.

Xaretarrok badugu gure euskalkia, lapurtera, eta hiru herrien ondasunen artean mugak jarri ditugu, bilkura bat badela erakusteko»

batera, Xaretako nortasuna aldarrikatzen du. Eurek argi dute ez direla baztandarrak, baizik eta xaretarrak. «Baztandik ukatzen gaituzte. Honat etortzen den jende anitzek uste dute hau Baztan dela, eta, beraz, baztandarrak

Mentak gaineratu duenez, desberdintasun horren lekuko da, beste gauza askoren artean, Xaretan baztaneraz mintzatu beharrean lapurteraz egiten dutela. «Xaretan badugu gure euskalkia ere, lapurtera. Gure hegoaldean

darriak paratu dituzten arren, horrek ez du erran nahi banatzeko direnik. Mentak azaldu duenez, «hiru herrien ondasunen artean mugak banatzeko baino gehiago bilkura bat badela erakusteko». Oraindik hiru bakarrik di-

Mugak jartzen ari diren bitartean, Lapurdiko Ainhoa herria hor dabil Xareta eremuko asmoetan sartu edo ez sartu. Baina Zugarramurdi, Urdazubi eta Saran ez bezala, Ainhoan Udala izan da mugitu dena eta ez he-

litz pixka bat artifiziala litzateke. Ez dute hemengo ilusiorik eta borondatearik lan egiteko. Xaretan herria da mugitu dena eta Ainhoan Udala izan da, eta hori da diferentzia», nabarmendu du Menta jatetxeko jabeak.

Axularren etxea erakutsi

XARETARRAK elkarteko partaideek dirurik ez badute ere, ez zaie proiekturik falta. Abiatu nahi dituzten proiektuen artean esanguratsua da Pedro Agerre eta Azpilkueta Axular euskal idazle klasikoaren etxea museo bihurtzekoarena. Xareta eremu geografikoan dagoen Urdazubi herria, Alkerdi, Tejeria, Landibar, Leorlas eta Dantzarinea auzoek osatzen dute. Auzo hauetako batean, Leorlasen hain zuzen ere, dago Axularren etxea. Jakina denez, Axular Gero liburuaren egilea da, eta berak lapurteraz utzitako izkribuak eta lanak euskara batuaren aitzindari gisa onartuak dira egun. Idazlea ezezik, apeza ere izan zen urdazubiarra. Urte askotan Xaretan dagoen mugaz bestaldeko Sara herrian bizi izan zen hango erretore zelako. Lapurdiko herri horretan idatzi zuen Gero ere, eta bere hilobia Saran bertan dago.

Hau guztia aintzat hartuta, Axularren etxea erakutsi nahi dute Xaretarrak

elkartekoek. Duela urte gutxi, Nafarroako Gobernuak Principe de Vianaren bidez etxea kanpoaldetik atontzeko dirua eman zuen, eta egun itxura onean dago. Barrualdea, berriz, nola aurki daiteken jakitea zaila da, etxea esku pribatuetan

dagoelako, eta, beraz, itxita egoten delako. Xaretarrak elkarteko partaideek euren proiektua martxan jartzeko hari bat baino gehiago mugitu beharko dute; hala ere, horretan saiatu egingo direla diote. «Axularren etxearekin zerbait egin nahi


genuke jendeak bisitatzeko eta jendea hona erakartzeko, baina partikular bartzuen eskuetan dago, eta ez dakigu nola egingen dugun. Kurlosoa bada ere, idazlea herrian eta inguruan baino ezagunagoa da hemendik kanpo» dio Jose Antonio

Mentak.

Bestalde, kontuan izan behar da 3.000 biztanle eskas biltzen dituen eta Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako herriek osatzen duten Xareta eremuak Euskal Herriko gunerik bisitatuetakoa dela. Iragan ur-

tean bakarrik 500.000 bisitari baino gehiago izan zituela nabarmendu du Elias Tapia Xaretarrak elkarteko buruak. «Joan den urtean Saran 280.000 bisitari izan genituen, 160.000 Zugarramurdiko leizeetan, eta Urdazubikoetan 100.000tik gora. Jendea honat etortzen delarik Euskal Herriko anitz jakiten ahal du, eta kultura anitz. Betidanik izan da mugimendua, eta hori gorde eta bultzatu behar da hemengo historia agertuz».

Diruaren premian, sosa ateratzeko ere ideiarik badarabilte buruan elkartekoek. Tapiak dioenez, lortu behar dute dirua datorren urteko sasola aurrera eramateko eta Xareta ezagutzeko ez duenari erakusteko. Aitzinean aipatu proiekturako eta besteendako dirua lortzeko, oraindik zehaztu gabe badute ere, hasiera bezala Xaretako festak egitea otu zaie udazken partean. Diruaz aparte, aurretan, arreta publikizitatean jarriko dutela diote, Xareta ezagutarazteko. X



Xaretarrak elkartearen proiektuen artean Axular idazle urdazubiarraren etxea museo bihurtzekoa da.

OSKAR MONTERO

Mundiñano anaien txapelaren eske

Hamazortzi bikote ariko dira atzo Goizuetako saioarekin hasi zen Nafarroako Trikitixa Txapelketan

Atzo hasi zen Goizuetan Nafarroako III. Trikitixa Txapelketa, 18 bikoteren partaidetzarekin. Lehen saio honetan bederatzik bikote aritzekoak ziren soinu zaharrekin, eta abuztuaren 25ean, Lakuntzan, bigarren kanporaketa izango da. Finala Altsasun jokatu da irailaren 15ean, eta orduan ikusiko da aurreko bi urteetan Etxarri-Aranazko Mundiñano anaiek jantzitako txapela beste inork bururatzeko ahal duen.

Alberto Barandiaran / Iruñea



Mikel eta Iñaki Mundiñano, aurreko bi ekitaldietako txapelak.

EGUNKARIA

TRIKITIXA, gaur arte gure lurraldean tradizio handirik izan ez duen soinu tresna, gora ari da. Gipuzkoan —batez ere— eta Bizkaian aspaldian errotua zenak ez zuen bereganatzen gurean gaitak eta txistuak zuen ospea. Izan ere, ez dagoelako bikoteak, beste bultzadarik gabe, edozein herrian ateratzeko behar den tradizioa, gauzak errazago eta ohikoago egiten dituen ohitura. Eskolak behar, beraz. Lehendabizikoak soinu honekin harremanen bat izan zuten herrietan sortu ziren. Horrela, Baztan-Bidasoako trikitixa eskolek zabaldu biderei esker gero eta gazte gehiago plazaratzen ari dira azkenotan, eta afizioak gora egin duela ez da dudarik: trikitixa emankizunik jaietan edo ospakizunetan sartzen duten herriek erreparatzea besterik ez dago.

Goizuetan, Bera, Sunbilla, Lesaka, Leitza, Ituren izan ziren lehenak, eta geroago etorri ziren Sakanakoak, Iruñerriaren daudenak eta Lizarrakoa. Hortxe prestatzen hasi ziren pandero jole eta soinu jole franko, pixkanaka kalera ateratzen hasteko. Orduantxe sortu zen Nafarroako Txapelketa eratzeko ideia. «Duela hiru urte arte», azaldu du txapelketa honen antolatzaileetako batek, Patxi Agirre arbizuarrak, «Gipuzkoako eta Bizkaiko herri gehienetan ospatzen ziren trikitixa txapelketetan ez zuten parte hartzen nafarrek. Denak ziren gipuzkoarrak edo bizkaitarrak, eta arabar ere gutxi zegoen. Beraz, pentsatu genuen ez zegoela gure artean konbentzitzeko moduko jendea. Pentsatu genuen bagenuela eskolak, baina ez genekiela zer jende genuen. Orduan erabaki genuen txapelketa antolatzea, ikusteko gure jendearen maila».

Duela hiru urte egin zuten lehen ahalegina, eta emaitza ezin hobea izan zen. Arbizuko jaietan egin zen finala, eta maila polita erakutsi zuten bikoteek. Iaz «aparra bezala igo zen maila» Agirrerren idurikoz, eta aurten ere joerak bide beretik jarraituko duelakoan dago. Atzo zen egitekoa lehen kanporaketa, Goizuetako jaietan, eta heldu den

abuztuaren 25ean Lakuntzako jaietan izango da bigarrena. Finala, irailaren 15ean, Altsasun, eta jaietan hori ere.

laz baino bikote gehiago • Txapelketak berak ez ditu aldaketa handiak, ez bada bikote kopuru handiagoa eta antolatzeko garaia aldatu egin dela apur bat. Iaz 14 taldek eman zuten izena parte hartzeko eta aurten 18 izango

dira, nahiz eta hasieran 23 bikote zeuden prest jotzeko. Halaber, aurreko urteetako txapelketa garaia atzeratu egin da abuztura arte, trikitilariendako egokiagoa izango den ustean. «Trikitilari gehienak ikasleak dira», azaldu du Agirrek, «eta ekaineko garai haiek txar samarrak dira beraintzat, azterketak eta bete-beteant dituztelako. Beraz, urduritasun handia zegoen haien

artean, eta maila ez zen oso garbi ikusten nola hobetzen zen».

Bi lagun bakarrik aritzen dira antolakuntza lanetan, baina lehen urteetako ezjakintasuna gairatuta, herrietako udaletatik datorren laguntzari esker, lana ez da horren latza. «Herrietan izugarriko harrera jasotzen ohi dugu txapelketa egiteko planteatzen diegunean eta oraingoan ere berdin». Partehartzaileek hiru

pieza jo beharko dituzte —trikitixa, porrusalda eta fandango—, eta baserriar jantziak eraman beharko dituzte soinean. Epalmahaiko izango dira Juntxo Urbieta hernaniarra eta Aitor Furundarena ordiziarra, eta finalean beraiekin batera ariko da Manu Iztueta donostiarra.

Txapelketa bera baino gehiago, helburua da 14 eta 24 urte bitarteko gazte hauek trebatzea, herrietako jaietara eta ospakizunak alaitzera ateratzen direnean maila ematea. Emaitzak ez dira berandutu, iaz Gipuzkoako bi txapelketatan —Donostiako Gros eta Amara auzoetakoetan— txapelak aterata baitziren trikitilari nafarrak. Halaber, herri guztietatik etortzen diren eskaintzei aurre egin behar, derrigor. «Nafarroan trikitixak asko mugitzen du», dio Agirrek. «Jaiak, afariak, erromerietarako edo txaranga gisa, gauza askotarako mugitzen da jendea. Eta ez bakarrik iparraldean, baita Erribera aldean ere. Iaz saio politak egin genituen han, eta aurten ere egingo ditugu». Txapelketak berak motibazio handia ematen ohi die gazteei. «Txapelketarako lau pieza berri prestatzen aritzen dira, baina horretarako errepertorio askoz luzeagoa eduki behar dute. Beraz, kanpora jotzeko ohituratuta daude jada. Eta txapelketak ematen die gero motibazio handia kanpoan jotzeko ere». X

Hamazortzi bikote

AURREKO urtean baino lau bikote gehiago ariko dira trikitixa txapelketaren aurten goizuetan, eta horien artean azpimarratzekoak dira leitzarrak, goizuetarrak eta lesakarrak, baina bikote aurkeztuko baitituzte herri horiek. Atzoko saioan zortzi bikote ziren parte hartzekoak: Dani eta Ainara Narbarte goizuetarrak, Iruñe Agirre eta Onditz Artieda —Arbizu eta Etxarri-Aranatz—, Amaia eta Joseba Irastorza beratarak, Ainara eta Harkaitz Mundegia iturrendarrak, Lorea Ba-

baze eta Ainhoa Etxegarai —Urtotz eta Donamaria—, Iruñe eta Patxi Zabala goizuetarrak, Oihana Almandoz eta Jose Mari Elgorriaga lesakarrak, Nekane Etxandi eta Estitxu Elgorriaga, lesakarrak hauek ere, eta Onintza eta Ainhoa Bengoetxea leitzarrak. Lakuntzako kanporaketan bikote hauek ariko dira: Garikoitz Arrieta eta Jose Mari Elgorriaga —Sunbilla eta Lesaka—, Mikel eta Iñaki Mundiñano etxarriarrak, Iñaki Mendinueta eta Onditz Artieda —Arbizu eta Etxarri—, David eta

Loren Nuñez leizarrak, Olatz Irigoi eta Leire Amoros arantzarrak, Nerea Saralegi eta Xabier Arraras leitzarrak, Maria Mutuberria eta Jaione Otxandorena —Elgorriaga eta Sunbilla—, Aitziber Mindedgia eta Amaia Arretxea —Ituren eta Sunbilla— eta Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa —Lesaka eta Arano—.

Bi saioetako puntuazioak kontuan harturik puntuazio altuena duten zortzi bikoteak egongo dira Altsasuko finalean eta, parte hartzeagatik bi-

kote bakoitzak izango duen dietaz gain, sariak hauek izango dira: irabazleak txapela, garakurra eta 40.000 pezeta (1.600 libera inguru) jasoko du, eta bigarrenak garakurra eta 35.000 pezeta; hirugarrenak 30.000 pezeta poltsikoratuko du, eta garakurra, eta laugarrenak 25.000 pezeta. Finalera iritsitako gairatutako guztiek 20.000 pezetako saria jasoko dute. Helburua, nola ez, lehen bi edizioetan irabazi zuten Mundiñano anaia etxarriarrak garaitzea izango da.

* ◆ Iñigo Monreal ◆ Lasterkaria

«Kirolari gisa esperientzia txarra izan dut»

Iñigo Monreal etorri berria da Atlantako Joko Olinpikoetatik. 400 metroetako hesidun proban egin zuen lasterka. Emaitzak uste baino txarragoak izan ziren, lehen kanporaketa ez igarotzeaz gain ez zuelako bere marka ere egin. Atlantant lortutakoarekin ez dago pozik, baina lehiatzen jarraitzeko gogoz dabil. Aurrerantzean, Madrilgo Larios taldearen izenean egingen du korrika. Helburua, duen marka hobetu eta parte hartzen duen lasterketetan maila onena erakustea da.


Irene Arrizurieta / Iruñea

INGELESEZ komunikatzeko adina jakinda ere, Iñigo aspertu egin da Atlantant, bere proba uztaillaren 29an izan zuelako eta abuztuaren 6ra arte ez zelako Iruñera iritsi. Denbora libre asko, estadiora probak ikustera ezin joan, eta behin hiria bi egunetan ibili eta gero, zeregin gutxi. Beraz, etxea eta familia gogoz hartu ditu.

■ Atlantako Joko Olinpikoetatik etorri berria zara. Nolako izan da esperientzia?

Beste txapelketa bat bezala ikusirik oso esperientzia ona izan da, Olinpiadan egotea nahikoa garrantzitsua baita. Baina kirol mailari lotzen bagara, txarra, oso gaizki egin nuelako nire lana. Urte osoan Olinpiadak prestatu ondoren eta jakinda komunikabide guztietan agertzen den gertakari garrantzitsua dela, ongi ibili ez izanak tristura ematen dit.

■ Uztaillaren 29an 400 metroetako hesidun proban lehenengo seriean egin zenuen lasterka eta azkena gelditu zinen, 52



Iñigo Monreal egonean dago egunotan eta irallean hasiko da gogor entrenatzen.

JOXE LACALLE

segundo eta 23 ehunekora, zure markatik -49,88- oso urrun. Zer dela eta aritu zinen hain gaizki?

Zenbait gauza gaizki atera zitzaizkidan. Lehenik eta behin, ez nuen lasterketa behar bezala egin. Aurreneko hesian pauso bat gehiago eman nuen eta beste bost hesiak okerreko hankarekin egin nituen. Hala ere, ez luke aitzakia izan beharko, beste lasterketa batzuetan ere gertatu izan zaidalako horrelakorik eta marka onak egin izan ditudalako. Era berean, indarririk gabe nengoen gripearekin egona nintzelako eta antibiotikoek ahul utzi ninduten. Bi gauza horiek batu ziren. Gainera, egokitu zitzaidan kalea -bigarre-

na- ez zen ona izan.

■ Urtebete eman duzu Olinpiada prestatzen. Nahikoa izan dela uste duzu, emaitza txarra prestateta lanetan denbora gutxi egin izana izan daiteke?

Fisikoki oso ongi prestatu nintzen Atlantara joateko, baina azken orduko infekzioak kalte egin zidan. Hala ere, horrelako probetarako baliteke beste mota bateko prestakuntza behar izatea. Hara iristen zara, estadiora atera eta oso urduri jartzen zara. Lasterkari hobeekin maizago proba gehiagotan parte hartzea falta zaigu ohitura jakin batzuetara egokitzeko. Adibidez, txapelketa horietan 50 minutu lehenago deitzen zaituzte proban parte hartzeko eta pauso asko eman behar dira aurretik. Batzuetan hotz gera zaitzeko bi ordu edo ordu eta erdi lehenago berotu behar izaten duzulako eta gero 40 minutu geldirik geratu. Horretara ohitua ez bazaude gero lasterketan ordaindu egiten duzu.

■ Zein zen zure helburua Atlantant?

Denboraldia hasi zenean hel-

burua Atlantara joatea zen. Gero, lasterketa ona egitea zen. Ez marka pertsonala egitea edo bigarren txandara pasatzea, baina bai ongi egitea, 50 segundotan egotea. Egia da denboraldia ere ez zaidala ongi atera. Hobekien nengonean gaixotu egin nintzen eta ezin izan nituen korritu behar nituen lasterketa asko. Aurten, joan den urtean baino marka txarragoa egin dut. Nire seriean 48 segundo eta 56 ehunekorekin pasatzen zinen. Honek esan nahi du hobetu behar nuela Espainiako errekorra segundo erdi eta nirera segundo eta erdi, eta hori ia ezinezkoa zen.

■ Beste atleta euskaldun batzuek oso emaitza onak lortu dituzte Atlantant. Besteak hain ongi eta zu hain pattal ikusirik pena sentituko zenuen, ezta?

Bakoitzak bere aukerak ditu. Ezin diozu Indurain-i edo Martin Fiz-i niri bezala exijitu. Bakoitzak maila bat du eta maila horretatik abiatu hasi behar duzu baloratzen. Egia da nik gaizki egin dudala, baina Indurainek domina

s o s l a i a

Iñigo Monrealek 21 urte besterik ez ditu, gaztea da beraz, eta, adituek diotenez, etorkizun handiko lasterkaria. Kirola egitea beti izan du gustuko; atletismoan, 400 metro hesidunetan, duela zortzi bat urte hasi zen. Aurretiaz beisbolean eta taekwondoan ibilia zen, baina, berak aitortu digunez, aspertu egiten zen ez zuelako lehiaketetan parte hartzen. Hori ikusirik hasi zen lasterka.

Duela hiru urte hasi zen goi mailako lasterketetan ibiltzeko markak egiten. Joan den urtean lortu zuen 49 segundo eta 88 ehuneko markagatik, abendura arte Espainiako Federazioak emandako beka kobratuko du. Gero, Madrilgo Larios taldeko partaide izango da.

Kirolak bestelakorik egiteko beta handirik uzten ez badio ere, euskara ikasten hasia da. Motel bada ere, bigarren urratsean dago, eta, euskara ezezik, duela lau urte Nafarroako Unibertsitate Publikoan hasitako Industri Ingeniaritza Teknikoko ikasketekin jarraituko du.

lortzeak ez du inor harritu, bakoitzak bere maila erakutsi baitu. Fiz-ena tristeagoa izan bada ere, oro har euskal atleten lana ona izan da. Gehienek beren markak egin dituzte.

■ Etorkizunerako zer asmo dituzu?

Datorren urtean atletismoko munduko txapelketa dago eta hori prestatuko dut. Hemendik aurrera saiatuko naiz txapelketa guztietara joaten. Europakoa izango da hurrengoan eta hiru urte barru berriz ere munduko txapelketa. Ondoren, Olinpiadetara joaten saiatuko naiz. Ni txapelketa guztietara joaten saiatuko naiz, batez ere txapelketa garrantzitsuetan lehiatzera ohitzeke, esperientzia handia behar baita. x

ETORKIZUNA

«Datorren urteko Munduko Atletismo Txapelketa prestatuko dut. Goi mailako txapelketetara joaten saiatuko naiz, batez ere horrelako probetan lehiatzen ohitzeke»

P A N E
LUCRANDOLIRIKAZ
HONATAGO
24

GAUR:

IHESA

Jim Thompson

Ihes egiteak gauza aunitz adierazten du. Zerbait garbi eta arina, txori batek zeruan negan egitea bezalakoa.



Edo zerbait zikin eta zital, Alegiazko eta benetako lohian karramarro baten gisa mugitzea, poliki-poliki durrera egin, alde batera salto egin eta atzera Korrika egiteko prozesu bat da.



ZALDI ERDA